


ZAKILIXUT

© Olariagak



Dramaren aurka, komediaren bidez

Ikuskizuna antolatu dute Arabako artistek euskal presoen eskubideen alde

EGUN berezia izan zen herenegungoa Arabako artistentzat. Izan ere, herrialde horretako antzezleak lehenbizikoz baturik egon ziren agertoki baten gainean, herenegun gauean, ekitaldi bateratua egiteko. Arrazoa? Euskal presoen eskubideen aldeko konpromisoa. Gustukuen duten tokitik, oholtzatik, eta hoberen dakitena egiten, antzezten. *Etxera* ekimenaren bidez, beren elkartasunaren beroa helarazi nahi zieten ikuskizunetako profesionalek presoei eta haien familiei, eta zinez lortu zuten.

Jendez mukuru zegoen Arabako antzoki handiena, Printzipal antzokia, eta sartzeko aukerarik gabe geratu zen hainbat jende, sarrerak azkar agortu zirelako.

Gazteak eta adinekoak artisten aldarrikapenari sustengua emateko bildu ziren, nahiz eta askorentzat halako ikuskizunetara joatea batere ohikoa ez izan. Agian, ekitaldiak beste xede bat ere bete zuten: jendearengan artearekiko zaletasuna piztea, betiere aldarrikapen politikoa ahantzi gabe.

Hasieratik argi eta garbi geratu zen ez zela presoen aldeko betiko ekitaldien modukoa izango. Izotza haustea Traspasos taldeari egokitu zitzaion. Dantza emanaldi ausarta egin zuen, musika berriak eta flamenkoa nahastuta; eta ikusleentzako txaloen saria izan zuen. Handik aitzina, antzezpen ezberdinen xarmaz bete zen agertokia: komedia, drama, malabareak, dantza

edo kabareta; xehetasunik txikiena ere galtzeko prest ez zegoen ikusle harrituaren gozamenarako.

Eta oroitzeko uneak izan ziren, aktore eta antzerki taldeek besaulki eta telebista batekin eginiko aurkezpen barregarrietatik abiatuta. Ñakekoek Euskal Herriko konstituzio berriaren lehen artikulua aldarrikatu zuten: lanik ez



Goian, Traspasos taldearen saioa. Behean, 'Etxera' jaialdia ikustera joandako jendetza, ikuskizuna hasi aurretik.

berbaldiak eta haren freskotasunak.

Une hunkigarriak ere bizi izan ziren antzokian. Bernardo Atxaga idazleak hamabost urte baino gehiago kartzelan daraman Xabier Izaga olerkigile gasteiztarraren gutun bat irakurri zuenean, edo Kar-mele Perezek bi txotxongilo maitagarriekin presoen guraso adinduen bizipoza eta itxaropena irudikatu zituenean.

Amaierak, halako ekitaldietan gertatu ohi denez, zapore gazi-gozoa izan zuen. Gozoa, artistek eta ikusleek ikuskizunak izandako arrakasta agerian utzi zutelako txalo zaparrada luze batekin. Baina gazia, zoritxarrez, txalo horien hartzaileek, euskal preso politikoek, bertan egon beharrean harresi eta burdinaz inguratutako ziega batean daudelako.

Ivan Santamaria
 GASTEIZ